

**SAN JOAN KONPARTSA ETA HERNANIKO UDALAREN UDALAREN ARTEKO DIRULAGUNTZA
IZENDUNA EMATEKO ARAUAK**

Hernanin, bi mila eta hogeita seiko martxoaren hogeitahiruan

BILDU DIRA

Alde batetik, _____, Hernaniko Udaleko Alkatea, Gudarien plaza, z/g helbidean egoitza duena eta P2004300F IFK zenbakia duena Hernaniko Udalaren izenean.

Beste aldetik, _____ zenbakia duena, San Joan Konpartsa Elkarteko lehendakaria, elkartearen izenean, zeinak egoitza soziala Florida 250 _____ zenbakian, eta IFK zenbakia duen.

Bi ordezkariak behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri dokumentu hau sinatzeko eta dirulaguntza hau ondoko aurrekari hauen arabera betetzeko:

AURREKARIAK

1.- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzeari buruzkoa) 25.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerririk bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagun dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta zerbitzu publikoak eman ditzake, artikuluan berean aurreikusitakoaren arabera.

2.- San Joan Konpartsa Elkartea 1992an sortu zen Hernaniko euskal kultura aberasteko eta bultzatzeko helburuarekin eta orduztik Hernanin oso errotua dagoen taldea da. Bere sorreratik Kultur jardueran eragile aktiboa izan da eta hainbat ekintza antolatzen dituzte: erromeriak, dantzari festa, euskal dantzen ikastaroak...

Euskal kulturaren ondare ezinbestekoa eta garrantzitsua direla kontuan hartuta, Hernaniko Udalak orain arte bezala, ondare hori babestu eta San Joan Konpartsa Elkartea bultzatzen jarraitzeko asmo argia du.

Horiek horrela, Udalarekin dirulaguntza izendun hau sinatuko duen San Joan Konpartsa taldeak dirulaguntza honen baitan adosten diren ekimenak eramango ditu aurrera.

3.- Dirulaguntza honen xedea da dirulaguntza izendun honetan jasotzea San Joan Konpartsak egingo dituen emanaldiak, garatuko dituen egitasmoak eta horien aurrekontua zehaztea.

4.- Hitzarmen honen xedea bat dator Hernaniko Udalaren Dirulaguntzen 2026-2028 Plan Estrategikoan jasotako helburu estrategiko eta ekimen zehatzekin, zehazki:

- Udalerriko kultur sarea babestea, zabaltzea eta sustatzea, inplikaturako eragileen profesionaltasuna eta kultur sorkuntzari lotutako ereduak sendotuz (3. lerro estrategikoa).
- Kultur hedapenera bideratutako jarduerak eta programak babestea, zabaltzea eta sustatzea (3. lerro estrategikoa).
- Irabazi-asmorik gabeko elkarteen jarduera eta udalerraren interes orokorrean eragiten duten jarduerak babestea (3. lerro estrategikoa).
- Euskal historiaren eta kulturaren balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak babestea, zabaltzea eta sustatzea. (3. lerro estrategikoa).

KLAUSULAK

1.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kontsignazioa

Hernaniko Udalak urtero 30.000€ dirulaguntza emango dio Hernaniko San Joan Konpartsa Elkarteari eta aurrekontuan Dirulaguntza izendunen atalean jasoko da.

Partida: 1910.481.06.334.00 2026 (7774) Dirulag. Hitzarmena. San Joan Konpartsa

Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran, hain zuzen ere.

Dirulaguntza hau elkarteren emanaldiak prestatzeagatik eta eskaintzeagatik izandako gastuen konpentsazioa da eta formakuntza gastuak ordaintzeko.

AURREKONTUA	
EMANALDIAK	
Iñauteriak	2.300,00€
Dantzari Astea	15.000,00€
San Joan Jaiak	6.000,00€
Erromeriak	3.100,00€
San Tomas Eguna	3.000,00€
FORMAKUNTZA	600,00€
GUZTIRA	30.000,00 €

2.- Dirulaguntzaren iraupena.

Dirulaguntza izendun honen indarraldia lau urtekoa izango da, hau da, 2026ko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31 bitartekoa, eta beste lau urtez luzagarria.

Dirulaguntzaren iraupena bat dator Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 legeak 49 artikuluan xedatutako gehienezko epearekin. Dirulaguntza hau gauzatu ahal izango da, baldin eta Udalak urteroko aurrekontuan elkartearen aldeko beharrezko gastu kontsignazioa gordetzen badu.

Nolanahi ere, bi aldeetako batek dirulaguntza izenduna bertan behera utzi nahiko balu, gutxienez 2 hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste sinatzaileari.

3.- Egoitza soziala eta materiala.

San Joan Konpartsa Elkarte Florida 25C helbidean udalak duen lokal baten erabilpenerako baimena eman zaio, bertan kokatzen dutelarik eguneroko jarduera.

4.- San Joan Konpartsaren betebeharrak.

San Joan Konpartsak hainbat ekitaldi antolatuko ditu urtean zehar

- San Tomaseko postua eta erromeria
- Iñauterietako erromeria

- San Joan jaietako kantaita, erromeriak eta konpartsa
- Dantzari astea
- Euskal Jaietako erromeria
- Hileroko erromeriak
- Euskal dantza ikastaroak

Udalak egoki iritziz gero, bi parte-hartze eskatu ahal izango dizkio San Joan Konpartsari ospakizun, inaugurazio edo antzeko ekitaldi bereziren bati lotuta. Horrelako jarduerak alde biek adostu beharko dituzte.

Diruz lagundutako jardueren publizitate-euskarri guztietan, pertsona edo erakunde sustatzaileak Hernaniko Udalaren lankidetzara adierazi beharko du, irudi korporatiboko arauen arabera eta Hernaniko Udalak onartutako hizkuntza irizpideak errespetatuz.

Dirulaguntza honetan jasotako jarduerak Hernaniko Udalak indarrean dituen euskara irizpideak beteko dituzte. Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko badu Erabilera Plana onartua. Plan horren arabera, hauek dira bete beharreko hizkuntza irizpideak:

- a) San Joan Konpartsaren **publizitatea euskaraz izango da** (*egitaraua, kartelak...*), eta jardueraren ahozko aurkezpena eta azalpenak euskaraz izango dira. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, euskaraz idatziz.
- Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanaz.
- Euskarazko nabarmenduz, letra handiagoa edo lodia erabiliz.
- Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatziz.
- Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerrean idatziz.

- b) Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da, ahoz eta idatziz.

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko, edo bestelako laguntzarik emateko.

Hizkuntza irizpideen betetze mailaren justifikazioa egiteko, urte amaierako memoriarekin batera jarduera bakoitza iragartzeko dokumentazio grafikoa (kartelak eta egitarauak...) entregatuko da. Jardueraren aurkezpenik egin bada, aurkezpen hori egiteko erabilitako hizkuntza zein izan den zehaztuko da (euskaraz ala ele bietan egin den).

Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, San Joan Konpartsa Taldeak Berdintasunaren arloan Hernaniko Udalak adierazitako irizpideak jarraitu beharko ditu.

Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki, irudi, publizitate eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rola alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik.

Bestalde, emakumeen presentzia eta parte-hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da.

5.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza justifikatzeko epea urtea bukatu eta hilabetera aurkeztu beharko da beranduenez, alegia, hurrengo urteko urtarrilaren 31rako.

Diruz lagundutako jardueraren memoria, ondoko gutxieneko edukiarekin: proiektuaren azalpena; dirulaguntza zer helburutarako eman den; egindako jarduerak, ezarritako helburuak eta lortutako emaitzak.

Egindako jardueren kostua justifikatzeko balantze-ekonomikoa laburtua, Hernaniko udalaren dirulaguntza kontuan hartu gabe izandako DEFIZITA adieraziz.

Soilik fakturekin edota banku ordainagiriekin egiten diren gastuak onartuko dira kontuan, tiketak eta antzekoak ez.

Gastu eta sarreraren zerrenda sailkatua aurkeztu behar da, EXCEL formatuan, gastu kontzeptuen arabera antolatuta. Zehaztuta izango ditu: gastuaren deskribapena, hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta ordainketa data.

Ez da beharrezko izango faktura edo ordainagiriak aurkeztea, baina udalak beretzat gordeko du edozein unetan gastuaren egiaztagiria eskatzeko eskubidea, dirulaguntza eman eta gehienez 4 urtera arte, 2003ko dirulaguntzei buruzko lege orokorraren 39. artikuluan zehazten den bezala.

Jasotako beste dirulaguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta ebazpenen kopia.

Zerba behebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna (eta Gizarte Segurantzaren Hala Badagokio).

Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna.

6.- Helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin emandako dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da dirulaguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, Dirulaguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

Dirulaguntza edo laguntza hori urtero Udalari aurkeztuko zaion txosten ekonomikoaren sarreraren atalean jaso beharko da.

7.- Dirulaguntza ez betetzea.

Dirulaguntza honetan jasotakoa bete ezean, bertan behera geratuko da, eta Udalak dagozkion neurriak hartuko ditu.

Dirulaguntza izendun honen interpretazio zalantzak Udalak ebatziko ditu eta dirulaguntza aplikatzearen ondorioz bestelako eztabaidarik sortzen baldin bada, horiek Donostiako Auzitegiek eta Epaitegiek ebatziko dituzte.

Agiri hau irakurri ondoren, eta ados daudela adierazteko, bi ordezkariak sinatu egin dute goian adierazitako lekuan eta egunean.

Hernaniko alkatea

San Joan Konpartsako lehendakaria